



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko irailaren 27a

91. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzekoa. Aurkeztutako osoko zuzenketak (2. or.).
- Foru lege proiektua, tabakoaren aurrean gaixotasunei aurre hartu eta osasuna bultzatu eta babestekoa. Aurkeztutako osoko zuzenketak (13. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeei antisortze-metodoen erabilera-
ren arloko heziketa eta osasun-laguntza berma diezaien. Osoko Bilkurak onetsia (15. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzekoa

AURKEZTUTAKO OSOKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2002ko maiatzaren 27ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proiektua Gobernuari itzultzekoa.

Zioak: Lege proiektu honen xedea da euskararen erabilera arautzea, Foru Komunitateko goi-mailako eta unibertsitateko irakaskuntzako zentro publiko eta pribatuetan arau berberak erabiliz, irakaskuntza gaztelania edo espainieraz izan dadin soil-soilik. Horrela, I. titulua Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzkoa da, zeinak gaztelania edo espainiera hutsean emanen baititu ikasketa planetan orain diren eta gero batean izaten diren irakasgai guztiak. Salbuespen bakarra irakasle-ikasketak dira: "Nafarroako Unibertsitate Publikoak irakaskuntza lerro elebidunak jar ditzake irakasle-ikasketetan, baldin eta hezkuntza sisteman horren beharra badago".

Halaber, lege proiektuak xede du goi-mailako irakaskuntzako ikastetxe eta unibertsitate publikoetako administrazio-zerbitzuetan euskararen erabilera, erakundearen irudia eta herritarrentzako zerbitzuak arautzea, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskara erabiltzeari buruz eman diren azken dekretu eztabaidatuei jarraikiz (Nafarroako Auzitegi Nagusian haien aurkako errekurtsioak aurkeztuta daude, eta haietako bat deuseza dela deklaratu du auzitegi horrek).

IUN/NEB Parlamentuko Taldearen iritziz, aipaturiko lege proiektua UPNk legegintzaldi honetan abiarazi duen hizkuntza- eta hezkuntza-politika atzerakoi eta homogeneousatzailearen barnean kokatzen da. Gure talde politikoak arbuatu egiten du gizartearen baitako gatazka eta tirabirarako elementu gisa euskara erabiltzen duen politika alderdikeriazalea. Praktika politiko gisa defendatzen dugu gure aniztasunaren hizkuntza-adierazpenarekiko begirunea. Hain zuzen ere, gure herritar-nortasunaren funtsezko osagaia da, bai eta gure Komunitatearen osagai historikoa ere, kopuruaren aldetik garrantzitsuak diren beste adierazbide batzuei irekia dagoen aldetik.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak behar adina bitarteko izan ditu, sortu zenetik, euskarazko irakaskuntza-eskaintzaren pixkanakako garrantzari ekin ahal izateko berariazko Foru Lege baten beharrik gabe, eta, bereziki, egiteke dagoen lan bereki eta beharrezko bat gauzatzeko xedez hezkuntza-erkidegoan esku hartzeko eta hura blokeatzeko foru lege baten beharrik gabe. Bestalde, Nafarroako Auzitegi Nagusiak, 1998 eta 1999ko zenbait epaitan, Euskarari buruzko Legeak NUPen indarra duela adierazi zuen, eta aitortu egin zuen bertako ikasleek eskubidea daukatela euskarazko irakaskuntza eskatu eta izateko. Nafarroako Unibertsitate Publikoa ez dago Nafarroako errealitate soziolinguistikotik kanpo, eta helburu kultural eta sozial garaiak erdiesteko eratu zen, zerbitzatzen duen gizarteko hezkuntza-

erronkei erantzun ahal izateko moduko autonomiarekin eta behar adinako baliabideekin. Erronka horien artean dago oraindik lortzeke dagoen hizkuntza-normalizazioa.

Gizartea, ikasleak eta irakasleak eskatzen ari dira euskarak pixkanaka gorantz egin dezala NUPen. NUPeko ikasleen %24k adierazi du euskaraz ikasi nahi duela, eta 1.200 ikasle inguruk Nafarroatik atera behar izan dute ikasketak euskaraz egiteko. Ikasle-jario hori handitu ahalko litzateke, eta, horrekin batera, Foru Komunitateak neurri handiagoan galduko luke ezagutza-indar bat eta giza baliabideen multzo bat. Nafarroako Unibertsitate Publikoak behar diren urratsak eman ahal ditu eta eman behar ditu bere hezkuntza-eskaintza Nafarroako errealitate soziolinguistikoari egokitzeko, beste erkidego batzuetan egin den bezala.

Ikuspegi horretatik, lege proiektuak ez du ez objektibotasunik ez eta errealitatearen zentzurik ere. Alta, errealitate sozial hori ezagutzera behar-tuta dago, eta erantzun bat emateko erantzukizuna dauka. Argitaraturiko datuek adierazten dute gero eta ikasle gehiago ari direla Nafarroan selektibitate aurkeztzen D eredutik. Haien ehunekoak %9koa zen 1995ean, eta 2002an %22ra iritsi da. Halaber, Gobernuak unibertsitateaz besteko irakaskuntzetan eredu elebidunetako matrikulazioari buruzko datuak zein diren ezagutzen du, eta badaki euskarazko unibertsitate irakaskuntzarako eskariak gorantz egiten segituko duela. 2006an laukoiztu ere egin liteke, NUPeko Gizarte Kontseiluak 1999an egindako txosten zabal batean esaten denez.

Exekutiboak aldaketa nabarmenak sartu ditu, oztopo larriak jartzen dituztenak eta atzerakada bat eragin dutenak. Ondorioz, ezereztatu egiten dute hizkuntza-normalizazioari beste autonomia-erkidegoetan egin den moduan aurre egiteko edozein ekimen, orainari nahiz etorkizunari begira. Proiektu horren egokitasun politikoa deuseza da, UPNrentzat izan ezik, horrela beste urrats bat ematen baitu hizkuntza-homogeneizaziorako daukan estrategiaren bidean, zeina ageriko kontraesanean baitago Euskarari buruzko Foru Legearekin. Lege horrek, 25.1 artikuluan, ezartzen du: "Euskara irakaskuntzan sartzea mailaz maila, gero eta gehiago, eta nahikotasunaz eginen da, ikastetxeetan euskarazko irakaskuntza duten ereduak sortuz".

Laburbilduz, euskararen erabilerari buruzko lege proiektua murriztaileztat jotzen dugu euskarazko irakaskuntza eskatu eta izateko askatasunari dagokionez, eta atzerakoa ere, indarreko Euskarari buruzko Legeari dagokionez. Igurikapen

soziolinguistikoak zapuzten ditu, euskarazko unibertsitate irakaskuntza publikorako eskaera blokeatuz, eta Foru Komunitatearen barneko gizarte-liskarra areagotzen du. Berriro ere, UPNk alde batera utzi ditu elkarrekiko adostasunerako bideak, bai arlo honetan bai beste batzuetan ere. Beraz, ez dira betetzen erabateko gehiengoa behar duen foru lege bat tramitatzeke behar diren baldintzak.

2. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, ordezkotestuduna, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proiektuari aurkeztua.

Zioak: Lege proiektu horrek urratu egiten du gobernu orenen jarduerazuzendu beharko lukeen printzipioa, hots, ordezkotzen duen gizarte osoa zerbitzatzea, herritar orok berezkoak dituen eskubideak errespetatuz eta errespetaraziz.

Eztabaidaezina da herritar bakoitzaren askatasun indibidualak ez direla hizkuntza-eskubideekin lotu gabeko zerbait: hitz egiten ari gara norberak pentsatu, bere burua garatu eta giza erkidego orok gauzatzen duen giza-elkarreraginean jarduteko nahi dueneko hizkuntza aukeratzeko askatasunaz. Horregatik, hizkuntza-eskubideak funtsezko eskubide eta askatasunak dira, eta horiek babestea betebeharrak da administrazio orontzat, herritar guztien eskubide-berdintasunaren nahitaezko printzipioa gidari dela.

Alabaina, gogoratu beharra dago euskarak gure Komunitatean pairatzen duen egoera, bai eta Nafarroan bertako berezko hizkuntzak jasaten duen eremuz eremuko zatiketa diskriminatzailea. Eremuz eremuko zatiketak desberdintasunak eragiten ditu Nafarroako eskualde ezberdinetan nafar herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuetan euskarak duen presentziari dagokionez, eta ezin du inola ere erakarri inongo nafar herritarren eskubide indibidualak ukatzea.

Halaber, hezkuntza oinarriko eskubide bat dela kontsideratuz, oinarriko eskubide bat den heinean Nafarroako administrazioak bertako herritarrei erantzun behar die Foru Komunitatean unean uneko errealitateari egokitzuz.

Horregatik, gure iritziz lege proiektu honek zapaldu egiten du Nafarroako herritarren zati batek hizkuntza koofizialeko batean ikasketak

egiteko duen eskubidea, eta horrela urratu egiten du berezkoa dugun eta ofiziala den hizkuntza batean garatzeko duen askatasun pertsonala, gure legediak aitortzen duena.

Eztabaida sakonagoetan sartu gabe, errealitate ukaezina da ezen, hezkuntzako maila ezberdinetan, haur, lehen, bigarren eta derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzan, badagoela Nafarroako herritarren zati bat bere hezkuntza eta prestakuntza euskaraz jorratzen ari dena.

Nafarroako administrazioak goi-mailako hezkuntza soilik gure Komunitateko hizkuntza ofizialetako batean eskaintzeak, zeina eztabaidagai dugun proiektuaren (zuzenketa hau aurkezten zaionaren) aplikazioaren zuzeneko ondorioa baita, esan nahi du guztiz ezinezkoa dela Nafarroako goi-mailako irakaskuntzetan hizkuntza aukeratzea. Eta hau modu batean soilik defini daiteke: nafar herritarren sektore bati hizkuntza-eskubideak zapaltzea da.

Foru Gobernuak urruntzen ari da herritarren beharrezanetatik, eta nafar herritar guztien eskubide-berdintasuna aitortu eta hori gauzatzen lagundu beharrean, herritarren sektore bati (eta, beraz, nafar herritar guztiei) zapaldu egiten dizkio oinarritzakoak diren eskubide eta askatasun batzuk.

Gainera, "ad hoc" lege proiektu hau euskarari garapen-aukera guztiak kendu nahi dizkion helburu politiko baten antzezpena da, nahiz eta euskara historian zehar Nafarroan sortu, errespetatu, garatu eta betierekortu den komunikazio-tresna izan, gure lurraldearen egoera politiko ezberdinen gainetikoa, berdin zelarik Nafarroa beste estatu batean sartuta egotea edo, aitzitik, erresuma aske independentea izatea.

Euskara hizkuntza aurre-indoeuropearra da, eta bere garapenik behinenetakoa nafar errege ilustratuen agintepean izan zuen. Gaur egun ere, oraindik nafar askoren ama-hizkuntza da. Alabaina, nafar horiek ikusten dute nola Nafarroako administrazioak hain berezko eta zilegi duen errealitatea ezeztatzearen alde egiten duen.

Hori guztia dela-eta, gogoeta horiek justifikatzen dute osoko zuzenketa hau, lege proiektua itzultzeko eskatzen duena, aurkeztea.

ORDEZKO TESTUA

Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENEA

Indarreko ordenamendu juridikoak gure hizkuntza-aberastasuna ezagutzen du, eta euskara Nafarroako hizkuntzetako bat dela aitortzen du.

Halaber, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak, zeinak euskararen erabilera arautzen baitu, euskararen arauketa- eta eskakizun-mailak jorratzen ditu, baina betiere izaera ofiziala aitortzen dio euskarari.

Horrela, 18/1986 Foru Legeak bere funtsezko helburuen artean sartzen du nafar herritarrek euskara ezagutu eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta hizkuntza horren garapena Foru Komunitatean babestea, haren erabilera eta irakaskuntza bermatuz. Hala ere, aipaturiko foru legeak ez dio heltzen euskara unibertsitate-mailan irakatsi eta erabiltzeari, eta xede hori betetzera dator lege hau.

Nafarroako Unibertsitate Publikoa, zeina apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legearen bitartez eratu baitzen, Nafarroako gizartea bere osotasunean garatzeko beharrezana betetzera dator, Foru Komunitate guztiaren interesak asetzeko asmo logikoaz. Beraz, begi-bistakoa da unibertsitate horrek Nafarroako unibertsitate-ikasleen beharrezanean erantzun beharko diela, berdin delarik ikasle horiek Nafarroako zein udalerritakoak diren.

Ikuspegi horretatik, eta ez-diskriminatzearen printzipioarekin bat etorriz, 18/1986 Foru Legeko 3. artikuluko lehen lerroakadak honako hau xedatzen du: "Botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte hizkuntzagatik hiritarrak gutxietsiak izan ez daitezen".

Horregatik, Foru Komunitateko hizkuntzen izaera ofiziala gogoan izanik, eta diskriminaziozko tratua saihestearren, Nafarroako Unibertsitate Publikoak babestu egin behar du ikasleek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan euren unibertsitate-ikasketak egiteko daukaten eskubidea.

1. artikulua. Lege honen helburua.

1. Ikasle orok eskubidea dauka unibertsitate-ikasketak bai euskaraz bai gaztelaniaz egiteko.

2. Horretarako, Parlamentuak eta Foru Gobernuak behar diren neurriak hartuko dituzte Nafa-

roako unibertsitate-sisteman elebitasuna pixkanaka orokortzeko. Zehazki, eta hezkuntza euskaraz izateko eskubidea eraginkor egiteko xedez, bi erakundeek, unibertsitateekin lankidetzan, irakasleak pixkanaka euskalduntzeko bitartekoak ezarriko dituzte.

2. artikulua.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak Foru Komunitateko bi hizkuntzetan emanen ditu izaera ofizialeko unibertsitate-tituluak eskuratzeko ikasketak-planetan agertzen diren irakasgai guztiak.

3. artikulua.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak berariazko programak eginen ditu euskararen erabilera unibertsitate irakaskuntzan, ikerketa zientifikoan eta administrazio- nahiz zerbitzu-jardueran normalizatzeko, berdintasun- eta kalitate-baldintzetan.

4. artikulua.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak gaztelaniaz irakatsi beharreko ikasketak-planetan euskaraz irakatsiko diren hautapen libreko ikasgaiak sartuko ditu.

5. artikulua.

Aurreko artikuluetan jasotako arauak existitzen diren goi-mailako hezkuntzako eta unibertsitate-hezkuntzako ikastetxe publikoei ere aplikatuko zaizkie.

6. artikulua.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta existitzen diren goi-mailako irakaskuntzako eta unibertsitate irakaskuntzako ikastetxe publikoek bermatuko dute administrazio-zerbitzuak eta irakaskuntzaz bestekoak Nafarroako bi hizkuntzetan ematen direla.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta goi-mailako irakaskuntzako eta unibertsitate irakaskuntzako ikastetxe publikoen korporazio- eta erakunde-irudiak eta herritarrari erantzuteko zerbitzuek betiere Nafarroako Foru Komunitatearen izaera elebiduna errespetatuko dute.

Xedapen indargabetzailea

Foru lege honen aurka doazen xedapen guztiak indarrik gabe gelditzen dira.

Azken xedapenak

Lehenbizikoa. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege honetan xedatutakoa aplikatu, garatu eta betearazteko behar diren erregelamendu-mailako xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, ordezkotestuduna, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proiektuari aurkeztua.

Zioak: Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura eztabaidatzeko igorri duen foru lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko goi-mailako eta unibertsitateko irakaskuntzan euskara erabiltzeari buruzkoa, ezagutu ondoren, hari ordezkotestua duen osoko zuzenketa aurkeztea erabaki du, jarraian adierazten diren zioak direla-eta:

1. Lege proiektuak ez du Euskarari buruzko Legea errespetatzen, arautu beharrian debekatu egiten duelako. Alderdi sozialistaren aburuz, Nafarroako Gobernuak (zeinak Miguel Sanz baitu lehendakari) igorritako lege proiektua ez dator bat LORAFNAko 9. artikuluekin, ez eta euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 1.2.c artikuluekin ere. Izan ere, bere artikuluen xedea ez da Nafarroako goi-mailako eta unibertsitateko ikasketetan euskara irakasteko aukera arautzea, Nafarroako errealitate soziolinguistikoak eskatzen badu: Nafarroako Unibertsitate Publikoari izaera ofizialekoak diren eta balioa lurralde nazional osoan duten unibertsitate-tituluak irakaskuntza euskaraz emateko aukera kendu baizik ez du egiten. Aukera bat arautu beharrian, debekatu egiten du, hura ezinezko egiteko asmoz.

Horregatik, sozialisten taldearen proposamena guztiz bereizten da Miguel Sanz lehendakari duen gobernuak eginikotik, Nafarroako Unibertsitate Publikoan zenbait kasutan euskarazko irakaskuntzak ematearen aldeko jarrera erakusten baitu "euskarazko irakaskuntzari" buruzko III. titulu osoan.

Horregatik, proposameneko 7. artikulua honako esaten du: "Nafarroako Unibertsitate Publikoak euskarazko irakaskuntzak ezarri ahalko ditu honako titulazio eta irakasgaietan:

a) Zuzenean euskarari berari buruzkoak diren ikasketetan.

b) Irakasle-ikasketetan.

c) Gainerako titulazioei dagokienez, hautapen libreko irakasgaietan. Eta, bigarren puntuaren dienez, "Nafarroako Unibertsitate Publikoak berezko tituluak eta parekatuak lortzera bideraturiko euskarazko irakaskuntza ere ezarri ahalko du."

Halaber, testu artikuluduneko 6. artikulua haxe dio: "Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasketa-planetan dauden edo egonen diren irakasgaiak, lurralde nazional osoan balioa izanen duten unibertsitate-titulu ofizialak lortzekoak, euskaraz irakasteko, foru lege baten bitartez baimena eman beharko da. Kasu horietan, nahitaezkoa izanen da alde zurretik Unibertsitateko Gizarte Kontseiluak aldeko proposamena egitea". Xedapen hori kontrajarri egiten zaio foru lege proiektuak bere 1. artikuluan esaten duen honi: "Nafarroako Unibertsitate Publikoak gaztelania edo espainol hutsean emanen ditu izaera ofiziala eta Espainia osorako balioa duten unibertsitate tituluak lortzeko ikasketa planetan orain diren eta gero batean izaten diren irakasgai guztiak (Unibertsitateen Kontseiluak edo Unibertsitatea Koordinatzeko Kontseiluak homologatutako tituluak)".

2. Lege proiektuak ez du unibertsitate-autonomia errespetatzen, unibertsitatearen estatutuaren agertzen dena. Aztergai dugun foru lege proiektua ordenamendu juridikoari egokitzeari buruz Nafarroako Kontseiluak emandako 42/2002 irizpenean adierazten denez, Nafarroako Unibertsitate Publiko Estatutuak, zeinak martxoaren 13ko 68/1995 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitziren, "euskarari buruzko zehaztapen batzuk biltzen dituzte: 6.1 artikulua adierazten du gaztelania eta euskara Nafarroako Unibertsitate Publikoko berezko hizkuntzak direla eta, beraz, unibertsitateko kide guztiek eskubidea daukatela haiek ezagutu eta erabiltzeko; 90.h artikulua ikasleen eskubideen artean sartzen ditu Nafarroako bi hizkuntza ofizialetan emandako irakaskuntzei buruz indarra duen legediak ezarritakoak; eta V. titulua, zeina Unibertsitatean euskara erabiltzeari buruzkoa baita (102tik 109.era bitarteko artikulua), bi kapitulu osatua dago: lehenak xedapen orokorrak jasotzen ditu, eta bigarrenak Hizkuntza Normalizazioko Batzordea eta Euskararako Unitate Teknikoa arautzen ditu. Horietan, azpimarratzekoa da 1023.1 artikulua, zeinak xedatzen baitu ezen unibertsitate-erki-degoko kide guztiek bermatuta daukatela gaztelania eta euskara erabiltzeko eskubidea, hurrengo artikulua ezarritako moduan, eta inor ezin izanen dela diskriminatua izan bi hizkuntzetako edozein Unibertsitatearen eremuan erabiltzearen ondorioz".

Miguel Sanzen Gobernuaren lege proiektuak ez du inolako aipamenik egiten errealitate horri

buruz, eta badirudi foru lege hori onestearen bidez Nafarroako Unibertsitate Publikoko Estatutuak indargabetzea duela xede. Nahiz eta ez dugun ukatzen Nafarroako Parlamentuak hori egiteko eskumena duenik, talde sozialista ez dator bat horrekin, eta ez deritzo komenigarri foru lege baten bitartez unibertsitateko estatutuak aldatzeko ahalegin horri.

3. Miguel Sanzen Gobernuak behar adinako babesa ez daukaten lege proiektuak tramitatzen segitzen du. Sozialisten taldeak igartzen duena da Miguel Sanz lehendakari duen gobernuak 5. legegintzaldiaren amaieran zenbait lege proiektu igortzen ari zaiola Nafarroako Parlamentuari, horiek onesteko behar den gehiengoa izan gabe, bere "konpromiso" politikoak gauzatu ezinaren errua beste batzuei leporatzeko, eta honako itzaropenarekin: Nafarroako Parlamentuan Batasunaren botoekin bat ez etortzearen, talde sozialistari (zeina erabakigarria baita horrelako proiektuak onesteko) ezinezkoa izanen zaiola UPNren asmoei ezetz esatea.

Jokabide hori, objektiboki, Batasunak Parlamentuan duen presentziari etekin politikoa ateratzean datza, eta oraindik kritikagarriagoa da hizpide duguna bezalako Lege bat tartean dagoenean, zeinak arautzen baitu "Nafarroako gizartean horrenbesteko eragina duen" (halaxe esaten da foru lege proiektuko zioen azalpenean) gai bat, hizkuntzari dagokiona, alegia, eta legea onetsi ahal izateko erabateko gehiengoaren baietza beharrezkoa duen azken bozketa bat behar denean.

Foru legeak onesteko beharrezkoak diren 26 botoak elkarrizketaren eta negoziazioaren bitartez bilatu ordez Miguel Sanz lehendakari duen Gobernuak egiten duen "egintza burutuen" politika horrek ez dio talde sozialistari eragotziko UPNren proposamenei aurkezten dizkien alternatibak Nafarroako Parlamentuan defendatzea, hizpide dugun kasuan egiten duen bezala.

4. Alderdi sozialistak ez du lege proiektuaren testua negoziatu, Miguel Sanzen Gobernuak egozten digun bezala. Talde sozialistak argi utzi nahi du Miguel Sanzen Gobernuak igorritako testuaren gain ez duela talde honek aurretiazko inolako negoziatorik egin. Testu hori ez genuen ezagutzen, eta Miguel Sanzen Gobernuak ezin izanen du hori bera esan talde sozialistak ordezko testua duen osoko zuzenketa honen bidez egiten duen testu-proposamenaz, batez ere Nafarroako Unibertsitate Publikoko euskarazko irakaskuntzari dagokionez.

Hori dela-eta, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proiektuari osoko zuzenketa, ordezeko testuduna, aurkezten diogu.

ORDEZKO TESTUA

Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskarazko irakaskuntzak eta euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak arautu zituen, gizarte-beharrizanengatik eta Foru Hobetzeak hala agintzen zuelako, euskararen erabilera normala eta ofiziala gizarte-bizikidetasunaren eta irakaskuntzaren esparruetan. Arlo honetan, legegileak ez zuen egokitzat jo Nafarroako Foru Komunitatean garai hartan ematen ziren unibertsitate-ikasketa ezberdinetarako euskararen erabilera arautzea.

Geroago, apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legeak Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortu zuen eta horretan ere ez zen aipamen bakarra ere egin unibertsitate berrian euskarak izanzen zuen erabilerari buruz. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilua eratzeko abenduaren 9ko 20/1994 Foru Legean ere ez.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Estatutuek, zeinak martxoaren 13ko 68/1995 Foru Dekretuaren bitartez onetsi baitziren, euskarari buruzko xedapen batzuk badauzkate, baina ezin dira behar adinako legezko xedapentzat jo Nafarroako Unibertsitate Publikoko euskarazko irakaskuntzari dagokionez. Horregatik, esan daiteke arlo honetan lege-hutsune bat dagoela, eta horrek ziurgabetasun juridikoko egoera bat sortzen duela hizkuntzaren arloan, zeinak hainbestearainoko eragina baitauka Nafarroako gizartean.

Horregatik, bada, komeni da Nafarroako Parlamentuak gai honetan sortu den egoerari konponbidea ematea, betiere Foru Komunitateko egoera soziolinguistikoari kasu eginda, arautua egon dadin euskararen irakaskuntza eta erabilera goi mailako irakaskuntzan, unibertsitate publikoari dagokionez eta, bestetik, unibertsitate-administrazio publikoari dagokionez.

Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzarako euskararen erabileraren araubide hau ezartzen da Foru Komunitate-

ak hizkuntza-gaietan duen eskumenaren esparru zorrotzetik, unibertsitate irakaskuntzaren arloa ukitu gabe, horren araubidea Estatuari eta, kasu bada, unibertsitateei, euren autonomia dela-eta, baitagokie.

I. titulua: Xedapen orokorrak

1. artikulua. Foru lege honen xedea da euskarazko irakaskuntzak eta euskararen erabilera arautzea Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

2. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskararen erabilera arautuko dute foru lege honetan xedaturikoak, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko atariko tituluak eta I. tituluak, Nafarroako Unibertsitate Publikoko estatutuek eta horiek garatzen dituzten arauak.

3. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskarazko irakaskuntza arautuko dute foru lege honek, Nafarroako Unibertsitate Publikoko estatutuek eta horiek garatzen dituzten arauak.

II. titulua: Euskararen erabilera administrazio-zerbitzuetan

4. artikulua. Foru lege honetako bigarren artikuluan xedatuaren ondorioetarako, Nafarroako Unibertsitate Publikoko administrazioari eta bertako administrazio eta zerbitzuetako langileei araudi horretan ezarritako araubidea aplikatuko zaie.

5. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoan behar diren planak onetsiko ditu titulu honetan bildutako helburuak pixkanaka lortzeko.

III. titulua: Irakaskuntza

6. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoan ikasketa-planetan dauden edo egonen diren irakasgaiak, lurralde nazional osoan balioa izanzen duten unibertsitate-titulu ofizialak lortzekoak, euskaraz irakasteko, foru lege baten bitartez baimena eman beharko da. Kasu horietan, Unibertsitateko Gizarte Kontseiluak aurretiaz emanen du aldeko txostena.

7. artikulua. 1. Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskarazko irakaskuntzak ezarri ahalko ditu honako titulazio eta irakasgaietan:

- Zuzenean euskarari berari buruzkoak diren ikasketetan.
- Irakasle-ikasketetan.
- Gainerako titulazioei dagokienez, hautapen libreko irakasgaietan.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoak berezko tituluak eta parekatuak lortzera bideraturiko euskarazko irakaskuntza ere ezarri ahalko du.

3. Nafarroako Unibertsitate Publikoak euskararen irakaskuntza ezarriko du euskaraz jakin nahi duten Unibertsitateko ikasleei horretan laguntzeko eta hori beharrezkoa duten titulazioetan etorkizuneko lanbide-jardunerako euskaraz ikastea ahalbidetzeko.

8. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publiko-ko irakasleen plantilla organikoan zehaztuko da zer postu eskuratzeko izanen den nahitaezkoa euskaraz jakitea, hizkuntza horretako irakaskuntza baimenduei atxikiak egoteagatik.

Xedapen gehigarria

Aurreko artikuluetan jasotako arauak Nafarroako Foru Komunitateko goi-mailako hezkuntzako eta unibertsitate-hezkuntzako ikastetxe publikoei ere aplikatuko zaizkie.

Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

4. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proiektua itzulia izan dadin.

Zioak: Gizarte orok du eskubidea bere hizkuntzaz edozein egoeratan baliatzeko. Hori horrela, baldintza batzuk ezartzeko beharra sortzen da hizkuntza hori erabili ahal izateko. Euskarari buruzko Foru Legeak dio, 2.1 artikuluan, euskara Nafarroako hizkuntza berekia dela.

Komunitate osoaren eskubide linguistikoak errespetatu behar dira; horrela, Eskubide linguistikoari buruzko Adierazpen Unibertsalak (Bartzelonan sinatu zen, 1996ko ekainaren 6an), 3.2 artikuluan, herritarren eskubide linguistikoak zehaztu zituen:

1. Norberaren hizkuntzaren eta kulturaren irakaskuntza izateko eskubidea.

2. Kultur zerbitzuak izateko eskubidea.

3. Erakunde ofizialetan eta harreman sozioekonomikoetan norberaren hizkuntzan hartua izateko eskubidea.

Goi mailako irakaskuntzan euskararen erabilera arautzea oso da garrantzitsua hizkuntza hori berreskuratu eta normalizatzeko. Lanbide-jardueraren erkideko edozein eskualdetan gauzatzeko gai lirakeen profesional kualifikatuak prestatu beharko lituzke unibertsitateak, eta beste erkidego batzuetako profesionalekin lehiatzeko gai lirakeenak.

Lege proiektu honen xedea ez dator bat euskarari buruzko egungo legearen izpirituekin –berez ere nahiko mugatua–. Nafarroa, dakigunez, hiru eskualde linguistikoetan dago banatua, eta horietako batean euskara sarri erabiltzen da gizarteko edozein arlotan. Euskarazko irakaskuntza, NUPen, irakasle-ikasketako diplomaturara, hautapen libreko zenbait ikasgaietara eta titulazio berekietara mugatu nahi da, titulazio ofizialak kanpoan utziz; hori hizkuntza zerbait sinboliko eta bazterreko bihurtzea da, eta, modu horretan, aipatu berri ditugun eskubide linguistikoak urratzen dira.

Euskarak egun NUPen duen egoera ez dator bat unibertsitateko ikasleen benetako eskariarekin, ezta Nafarroako herritarren benetako eskariarekin. Zenbait inkestatan eta matrikulazio datuetan ikusi ahal izan da erkidego honetako herritarrek zer interesa duten euskara gorde dadin.

Badira bi datu funtsezkoak: ikasle edo herritarren artean eginiko inkestak batetik, eta, bestetik, unibertsitatearen aurreko mailetan euskarazko ereduak dituzten matrikulazio-datuak. Bi kasuetan, ehunekoak txikiak izan daitezke, baina etengabe ari dira gora egiten azken urteotan. Horrela, 1999an, NUPeko Gizarte Kontseiluak berak eginiko galdeketa batean –IKEI enpresaren bidez egin zuen–, nafarren ehuneko 70ek adierazi zuen ezen NUPen euskara bultzatzearen alde zegoela. Egundun unibertsitatearen beraren datuen arabera–, matrikulatutako ikasleen ehuneko 18k euskaraz daki, eta, datozen urteetan, datu horrek gora egin lezake; izan ere, 3 urteko ikasle nafarren ia ehuneko 30 ari da D ereduaren ikasten. Begi bistakoa da ikasle horiek, noizbait ere NUPen ate joka izan direla.

Aipatzekoa da, garrantzitsua baita, proiektu honekin hezkuntza-prozesua eteten ari zaiola geroz eta ehuneko handiagoa egiten duen ikasle multzo bati; ikasleok, unibertsitatara heltzean, euskarazko ikasketak egin ezinik gertatzen dira, eta, horren ondorioz, gure inguruko beste uniber-

tsitate batzuetara iretzen dira, edo, bestela, euskarazko ikasketak bertan behera uzten dituzte. Estatuko unibertsitateak ahalik eta ikasle gehiena erakartzeko lehian hasi dira, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak, ordea, ateak ixten dizkie bere "bezero" izan daitezkeenetako batzuei.

Halaber, gerta dakiguke, ez bazaigu dagoeneko gertatu, tekniko edo profesional gutxi dugula euskaraz prestatua, Euskal Autonomia Erkidegoan ikasitakoak izan ezik, euskara jakitea beharrezkoa edo egokiagoa den lanpostuak betetzeko. Egoera horrek, duda gabe, lehiakortasuna kenduko digu; izan ere, goi mailako irakaskuntzaren helburu nagusietako bat da lan merkatua hornitzea hark eskatutako pertsona kualifikatuz.

Euskarari buruzko legeak, nafar guztientzako legea baita, eta unibertsitateko Estatutuek, 6, 102 eta 103 artikuluek hain zuzen, berariaz aitortzen diote unibertsitateko komunitateari gaztelania eta euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea. 103. artikulua eskubide hori zehaztu egiten du, hizkuntza normalizazioaren arloko jarduketa ororentzat jarraibideak ezarri, eta hizkuntza biak erabiltzeko eskubidea aitortzen du.

Aipatu jarraibideak hauek dira:

1. Unibertsitateko gobernu organoekin izaten diren harremanak unibertsitateko hizkuntza berekietako edozeinetan izan ahal dira.

2. Unibertsitateko bileretan, unibertsitateko hizkuntza berekietako edozeinetan hitz egin ahal da.

3. Ikerketa lanak unibertsitateko hizkuntza berekietako edozeinetan aurkeztu eta argitaratu ahal dira.

4. Unibertsitateak euskaraz eskaintzen dituen ikasgaietan eta, betiere, legeak ezarritakoari jarraikiz, irakaskuntza euskaraz jaso eta eman daiteke, eta lanak, azterketak edo probak ere euskaraz izan daitezke.

Bestalde, 104. artikulua dio unibertsitateak plangintza bat eginen duela eta neurriak hartuko dituela euskararen erabilera normalizatzeko. Egun, ordea, hizkuntzaren normalizaziorako 5 plan egin badira ere NUPerako, denak geldiarazi dira.

Dudarik gabe, euskararen normalizazioan eta herritar guztien eskubide linguistikoen errespetuan aurrera egiteko, uste dugu bestelako foru lege bat egin behar dela, denen adostasuna izanen duena eta unibertsitateko agintea duten organoen jarduketa-ekasua konponduko duena. Proposamen horrek, gure ustez, hurrengoak jaso behar ditu, besteak beste:

– Euskaraz ikasteko bermea ikasgai guztietan, enborrekoak izan edo hautapen librekoak, baldin eta eskari nahikoa badago horretarako; euskarazko titulu berekien garapena, eta euskarazko jarduera zientifiko, kultural eta ludikoak; euskarako prestakuntza unibertsitateko komunitateko kideentzat, horiek hizkuntza ikasi edo hobetzeko interesa dutenerako; euskal filologiako titulua ezartzea; irakasleak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak kontratatuzko, euskaraz jakin beharko dutenen gutxieneko kupo bat jartzea. Betiere, egun euskaraz egiten denarekin jarraitu beharko da.

Horrenbestez, eta gure proposamenek lege proiektu honetan islarik ez dutenez, ez onartzea beste aukerarik ez dugu, eta gure eskariei benetan erantzunen dien beste bat igortzeko eskatzen dugu.

5. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, ordezkotestuduna, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proiektuari aurkeztua.

ORDEZKO TESTUA

ZIOEN AZALPENA

1978ko Konstituzioa jatorri izan duen Estatuak aitortu du errespetatu eta babestu beharreko ondare kultural komuna direla Espainiako herrien kultura, tradizio, hizkuntza eta instituzioak.

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 9. artikulua Espainiako Konstituzioko 3.2 artikuluko hizkuntzen koofizialtasunaren printzipioa islatu zuen. Nafarroako Foru Komunitatean, "gaztelera da hizkuntza ofiziala" (Foru Hobetzearen 9.1 art.) "Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan"; "Foru lege batek eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilera ofiziala arautu eta Estatuko legeria orokorra abiapuntutzat harturik, hizkuntza horren irakaskuntza antolatuko du"(Foru Hobetzearen 9.2 art.).

Horrek guztiak euskararen galeraren arrazoiak gaindiarazten lagundu ditu, oinarri hartuta gizartearen parte handi batek hizkuntzari dion estimazioa eta, orobat, hizkuntza bizitzarako nahiz komunikazio kultural eta sozialerako tresna bihur dadin duen nahia. Gizarteari jarraikiz, botere publikoek errealitate gisa hartu dute, eta hizkuntza bereki

eta ofizial gisa ere bai. Euskara irakaskuntzan sartu da, eta hizkuntza arlote eta larrekoa izatetik hizkuntza kultu izatera pasa da, erabat baliagarria egiten duten termino zehatzez hornitua, eta hainbat arlotan presentzia duena: hezkuntzan, literaturan, hedabideetan eta ikerketa akademikoan.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen zioen azalpenean, euskararen arautzearen printzipioak ezarri ziren Foru Hobetzearen 9. artikuluekin bat. Hizkuntzari, balio kultural, sozial eta identitatearen arlokoa aitortu zitzaion; hizkuntza, giza komunikaziorako tresna nagusia denez, giza harremanetako funtsezko oinarri bihurtzen da, kolektibitateari bere identitatea ematen dion elementu, eta gizarteetako kideen elkarbizitza eta ulermenerako faktore. Historiaren sinbolo eta lekukotasun-emaile izaten da hizkuntza; izan ere, erabiltzen duen herriaren esperientzia kolektiboa gorde eta transmititzen du belaunaldiz belaunaldi.

Euskara, Nafarroan, honen eraginpean dago oraindik ere: "hizkuntza fenomenoaren izaera dinamikoak eta bertan parte hartzen duten faktoreen zailtasun eta aniztasunak, etengabeko gora-beherak sortu dituzte historian barna komunitateetako hizkuntzen zabalera eta indarrari dagokionez: batzuen hedakuntza eta besteen atzerakada, batzutan hizkuntzaz kanpoko arazoiek eragina, dudarik gabe dira nabarmenenak. Aldaketa hauetan, maiz komunikazioaren oinarri direnen kontrako jarrerak izan dute esku. Jarrera hauek, hizkuntzetan arrazoirik gabe elkarrengandik urruntzeko indarra aurkitzen dutenek, edo hizkuntz aniztasunak berekin daukan barne-barneko aberastasuna ikusteko gauza ez direnek bultzatu dituzte."

Nafarroako herriaren identitatea dituen ondare kulturalak egoki babestuz aldeztu da, zeren eta "Nafarroa bezala beren ondarean hizkuntza bat baino gehiago edukitzeaz ondrazten diren Komunitateak, altxor hori begiratu eta babestera behartuak dira, baita hura hondatu eta galtzea eragoztera ere. Baina ondare horren zaintzea ezin daiteke egin, ezta behar ere, hizkuntzen arteko borroka eta gatazkaren bidez; aitzitik eta Konstituzioaren 3.3 artikulua ezartzen duenari jarraiki, errespetu eta babes berezia behar duten ondarea direla aitortuz.

Printzipio hauetan ezartzen da Foru Lege hau, zeinek aipatutako konstituzio agindua eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. artikuluan aurrikusitakoa garatzen bait du."

16/1986 Foru Legeko 2. artikulua bi hizkuntzak ezagutu eta erabiltzeko aitortzen duen esku-bideak eskatzen du hezkuntzan presentzia izan dezatela. Horrela ulertu zuen Nafarroako Foru Diputazioak, konpromiso eredugarria erakutsiz zer garai zen kontuan hartuta; "jabetzen baikara arazoaren larriaz eta gure balio kulturalen zaindari gisa dugun arduraz", zioen 1972ko abenduaren 15eko erabakian.

Foru legearen funtsezko helburuen artean dago euskararen ezagutza babestea eta "euskararen irakaskuntza bermatzea borondatezkoatasun, mailakatze eta begirune erizpideei jarraiki" (1.2 art. a) eta c) letrak), 19. artikulua honela dio: "hiritar guztiek dute hezkuntza mailetan irakaskuntza euskaraz eta erdaraz izateko eskubidea". Hori hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidearen (Konstituzioaren 3. artikulua, Foru Hobetzearen 9. artikulua eta foru legeko 2. eta 6. artikulua) gauzatzea da.

Unibertsitate maileri dagokionez, 21. artikuluan besterik ez da espresuki aipatzen: "Nafarroako Gobenuak, bere eskumenen esparruan, behar diren ekintzak aurrera eramanez, irakaslegoaren prestakuntzarako goi-mailako zentruen ikasketak-planek euskarazko irakaskuntzarako beharrezko den irakaslegoaren gaikuntza egokia bermatzen." Hor ez da arautzen hizkuntza ikasketak-planetara eramateko gaia; Gobernuari agindu bat ematen zaio, ordea, prestakuntza-ekintza horiek susta ditzan, eta, horrenbestez, izan daitezkeen euskarazko irakaskuntza emateko gaitasuna duten irakasleak.

Horrek ez du esan nahi, ordea, legeak ez duenik irakaskuntzari buruzko arau orokorrik, eta unibertsitateko irakaskuntza sarterik ez dagoenik arau orokor horien pean eta herritarrek hizkuntza ezagutu eta erabiltzeko duten eskubidearen pean (2.1 artikulua). Foru legearen helburua da "euskararen erabilpen normal eta ofiziala arautzea (...) irakaskuntzan" (1.1 art.), eta funtsezko helburuetako bat da "euskararen erabilpen eta irakaskuntza bermatzea borondatezkoatasun, mailakatze eta begirune erizpideei jarraiki" (1.2 art. c) letra) 19. artikulua adierazpen argi eta garbia egiten du: herritarrek irakaskuntza euskaraz eta erdaraz izateko eskubidea dute "hezkuntza mailetan", hots, guztietan, hurrengo arauetan ez baita bat ere kanpoan uzten, ezta unibertsitate maila ere. 19. artikulua aipatzen dituen kapituluek arau orokorrak ematen jarraitzen dute; gainera, eskubidea aipatzen dute behin eta berriz, eta, eskubidearen arabera, betebeharrak bat edo beste ezartzen dute administrazioarentzat: eremu euskaldunean "ikasle guztiek irakaskuntza hartu-

ko dute" (24.1 art.) eta eremu mistoan euskara "irakaskuntzan" sartuko da, hau da hezkuntza maila guztietan (19. art.).

Horrelaxe ulertu zuen Nafarroako Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietako salak, zeinak 1998ko abenduaren 9ko epaian honela baitzioen: "Ez da egia Euskarari buruzko abenduaren 15eko 16/1986 Foru Legeak ez duenik hartzen unibertsitateko irakaskuntza. Lege horretako 1. artikulua irakaskuntza aipatzen du, besterik gabe, eta 24. artikulua eta 26. artikulua unibertsitateko eta unibertsitateaz besteko irakaskuntzaren artean egiten duten bereizketa bakarra 25. artikuluan 2. idatz-zatikoa da, non berariaz aipatzen baitira unibertsitateaz besteko mailak. (...) Nafarroako Unibertsitate Publikoak Iruñean dauka egoitza, hots, eremu mistoan (5. artikulua b) letra), baina ematen duen zerbitzuak Foru Komunitateko lurralde guztia hartzen du; beraz, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Estatutuek, euskara dela eta, indarrean diren legeak aipatzen dituztenean (90. art. h) letra), ulertu behar da euskarari buruzko legeak ematen dituen arauak ari dela, zeinak aplikazio orokorrekoak baitira; hori, hala ere, ez da eragozpen izanen lege batek bereziki arautu dezan euskararen erabilpena unibertsitateko irakaskuntzan. Horiek horrela, aipatu xedapenekin bat dator euskarazko hezkuntza-lerro bat sortzea gaztelaniazko bat dagoeneko baden ezagutza-arlo batean."

Socialistas del Parlamento de Navarra, Eusko Alkartasuna eta Askotarikoa-Ezker Batua Parlamentuko taldeek Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu zuten, eta, beharbada, unibertsitateko irakaskuntzari buruzko erreferentzia zehatzik ez izateak eraginen zuen artikulua bat gehitu zedin proposatzea (20 bis artikulua); honela zioen: "Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak, zeinek bere eskumenen esparruan, beharrezko neurriak hartuko dituzte euskarazko eta euskararen irakaskuntza bermatzeko lanbide-heziketan eta unibertsitatean, hurrenez hurren, eskariarekin bat."

Nafarroako Unibertsitate Publikoa apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legearen bidez sortu zen, eta eginkizun hau esleitu zitzaion: "Nafarroako goi mailako hezkuntzaren zerbitzu publikoa, irakaskuntza, azterketa eta ikerketaren bidez" (1. art.). Konstituzioko 27.10 artikulua unibertsitateari aitortzen dion autonomia erabiliz, unibertsitateak Estatutuak onetsi zituen, non Euskarari buruzko Foru Legeak eremu mistoko irakaskuntzari buruz ezarritako printzipioak jaso baitzituen. 6.1 artikulua hau ezartzen du: "Gaztelania eta

euskara dira Nafarroako Unibertsitate Publikoak bere egiten dituen hizkuntzak eta beraz, unibertsitari guztiek dute biak jakin eta erabiltzeko eskubidea."

Hizkuntza-eskubidea 102.1 artikulua aitortu zuen, non hau xedatu baitzen: "Unibertsitateko Komunitateko partaide guztiek dute gaztelania eta euskara erabiltzeko eskubidea, eta Unibertsitatearen esparruaren barruan inor ez da bereiztua izango bi hizkuntzetako edozein erabiltzeagatik." Halaber, 103.1 artikulua hauek ere eskubideak zirela aitortu zuen: harremanak euskaraz izatea, euskaraz hitz egitea, lanak euskaraz aurkeztu eta argitaratzea eta "Unibertsitateak euskaraz eskaintzen dituen irakasgaietan irakaskuntzak euskaraz jaso eta eskaintzea, eta lanak, azterketak edo frogak egitea." Unibertsitateko organoak "behartuta daude eskubide hauek bete daitezen bermatzera" (103.2 art.)

Unibertsitateko jardueretan euskararen erabilera normalizatzeko plangintza eta neurriak aurreikusten dira 104. artikuluan, eta esaten da unibertsitateak euskarazko irakaskuntzen garapena bultzatuko duela, gizartearen dauden beharren eta eskaeren arabera; unibertsitateak euskarazko argitarapenak egin daitezkeen bultzatuko duela ere esaten da.

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 9. artikulua Nafarroako Foru Komunitateari eskumena ematen dio hizkuntzaren araubidea ezartzeko; horren frogagarri da abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea. Gehiengo osoa behar duen legea da, Foru Hobetzearen 20. artikulua ezartzen duenez. Edonola ere, arautze hori unibertsitatearen autonomia errespetatuz egin behar da, printzipio konstituzionala baita hori; Nafarroako Unibertsitate Publikoak Estatutuak onestean erabili zuen autonomia hori. Hori izan zen hizkuntza ofizial bat baino gehiago duten autonomia erkidegoek erabiliko bidea; 18/1986 Foru Legeak ez zuen berariazko arautzerik egin, baina horrek ez du esan nahi gaiari buruzko lege-hutsunerik dagoenik. Unibertsitatearen autonomia kontuan hartuta, Parlamentuak ezartzen duen lege-markoak autonomia hori gauzatzeko aukera eman behar du; hau da, arauak ezin dira zorrotzegiak izan, bestela autonomia hori desitxuraturik eta edukirik gabe gera daiteke.

1. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoak euskarak hurrengo arloetan izanen duen araubidea ezarriko du Estatutuetan, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearekin bat betiere: ikasketak-planetan, curriculumetan eta ematen dituen irakaskuntzetan, ematen dituen zerbitzuetan eta

Unibertsitateko komunitateko kide ororekin sortzen dituen harremanetan.

2. artikulua. Euskarazko irakaskuntzak borondatezkotasunaren printzipioari jarraikiz gauzatuko dira; horrela, curriculumeko zenbait enborreko ikasgai eta aukerako ikasgai ikasteko aukera emanen da, gai horretako hiztegi tekniko eta hizkera barneratu ahal izateko.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak curriculum bakoitzean ezarriko du zer enborreko irakasgai oinarritzeko beharko diren aipatu helburuak lortzeko, kontuan hartuz behar soziala, benetako eskaria eta prestatutako irakasleen eskuragarritasuna.

3. artikulua. Irakasle-ikasketetan besterik ezin izanen da euskarazko lerro elebakarra ezarri, hezkuntza sistemaren beharrei aurre egiteko eta euskarazko edo euskararen irakaskuntza emanen dutenak egoki prestatzeko.

Xedapen gehigarria

Foru lege honetako xedapenak goi mailako eta unibertsitate mailako zentro publikoetan aplikatuko dira, orain diren guztietan eta Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean izan daitezkeen guztietan.

Xedapen iragankorra

Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskararen araubidea ezarri arte, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aplikatuko da bertan.

Xedapen indargabetzailea

Foru lege honen aurka doazen xedapen guztiak indarrrik gabe gelditzen dira.

Azen xedapenak

Lehenbizikoa. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren erregelamenduzko xedapenak emateko.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hogeitau egunen buruan hartuko du indarra.

6. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
IGOR ARROYO LEATXE
JAUNAK AURKEZTUA

Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera

arautzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Gobernuak proiektu hau aurkeztu du esanez unibertsitatean euskara ez dagoela araututa. Hori, ordea, ez da inondik ere horrela. Lanpostu elebidun baterako deialdiari aurkeztutako errekurtsioa zela eta, Nafarroako Auzitegi Nagusiak, 1999ko otsailaren 25ean emaniko epai batean, honela zioen besteak beste:

“NUPeK Iruñean dauka egoitza, hots, eremu mistoan, baina ematen duen zerbitzuak Foru Komunitateko lurralde guztia hartzen du; beraz, Unibertsitateko estatutuek, euskara dela eta, indarrean diren legeak aipatzen dituztenean, ulertu behar da euskarari buruzko legeak ematen dituen arauetz ari dela, zeinak aplikazio orokorrekoak baitira; hori, hala ere, ez da eragozpen izanen lege batek bereziki arautu dezan euskararen erabilpena unibertsitateko irakaskuntzan”.

“Euskara irakaskuntzara gutxinaka, progresiboki eta nahikoa dela ekarriko da, zentroetan euskarazko irakaskuntzako lerroak sortuz eskatzen dutenentzat.”

“[Justifikatuta dago] euskarazko hezkuntzalerro bat sortzea gaztelaniazko bat dagoeneko baden ezagutza-arlo batean.”

Baieztapen horiek argi eta garbi erakusten dute Nafarroako Gobernuak erabilitako argudioa aitzakia bat besterik ez dela. Arazoa ez da unibertsitatean euskara legez araututa ez egotea; arazoa da egungo arauak, euskarari buruzko legean eta NUPeko Estatutan baitaude jasoak, ez direla Nafarroako Gobernuaren gustukoak. Eta, beraz, euskarari buruzko legean ezarritakoarekin alderatuta –berez ere nahiko motz geratzen den legea–, atzerapausoa da.

Horrela, bada, Nafarroako Gobernuak nola edo hala ekidin nahi du ikasle euskaldunek haien ikasketak euskaraz egin ditzaten eta Unibertsitateko komunitateko kideek Unibertsitateko administrazioarekin euskaraz harremanak izan ditzaten. Nafarroako Gobernuak, lege proiektu honen bidez, euskarazko irakaskuntza hautapen libreko kredituetara mugatu nahi du, eta irakasle-ikasketako euskarazko lerroak izateko ere baimena eskarazi nahi du.

Lege proiektu hau Nafarroako Gobernuak nafar guztien ondare kulturalaren aurka, hau da, euskararen, lingua navarrorum delakoaren aurka, abiarazi duen gurutzada gordinaren baitan dago. Kasu honetan, unibertsitatera helarazi nahi du gurutzada, eta bertan euskarazko ikasketak debekatu nahi ditu; hain zuzen ere Nafarroako ondare

kulturala kontu gehienez garatu eta bultzatu behar den gunera.

Beraz, parlamentari hau ez dator bat, inondik

inora, Gobernuak aurkeztutako lege proiektuarekin, eta osoko zuzenketa hau aurkeztu du proiektua Gobernuari itzultzeko.

Foru lege proiektua, tabakoaren aurrean gaixotasunei aurre hartu eta osasuna bultzatu eta babestekoa

AURKEZTUTAKO OSOKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, tabakoaren aurrean gaixotasunei aurre hartu eta osasuna bultzatu eta babesteko Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2002ko ekainaren 10eko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zuzenketa, Tabakoaren aurrean gaixotasunei aurre hartu eta osasuna bultzatu eta babesteko Foru Lege proiektua itzultzeko.

Zioak: Arau orean oinarrizko printzipioa izan behar du betetzeko modukoa izan dadila.

Aurkeztutako lege proiektu hau, zenbait alderditan, administrazio publikoak osorik betearazteko gai izan ez diren araudi indarduna baino murriztaileagoa da.

Zuzendu nahi den lege proiektu honetako artikuluetan osasun publikoko edozein programeatan garatzen diren jarduerak jasotzen dira, lege jakin baten xede izan ohi ez direnak; aitzitik, herritarren osasuna bultzatu, babestu eta gaixotasunei aurrea hartze aldera osasun zerbitzuek aurrera eramaten dituzten jarduera arruntetan garatu ohi dira horiek.

Gogoratu egin behar da, halere, Nafarroako Parlamentuak, tabakoari buruzko foru plana ones-

tean, aipatu jarduerak garatu ahal izateko tresna bat jarri zuela Osasun Departamentuaren esku.

Horregatik uste dugu jarduera horiek ez direla aurkezten zaigun legearen gisako baten xede.

Lege proiektuko gainontzeko artikulua, forma nahiz eduki aldeko ñabardura batzuk gorabehera, Herritarren osasuna babestearren tabakoa saldu eta erabiltzeko eragozpenei buruzko martxoaren 4ko 192/1988 Errege Dekretuaren berdin-berdinak dira. Begi-bistakoa da lege proiektu honek jaitsi egiten dituela errege dekretuan jasotzen diren zehapenak, eta hori legearen kontrakoa da.

Ez dugu lar azpimarratu nahi horrek askatasun individualen murrizketa dakarrela, zeren ez-erretzaileen eskubidea erretzaileen eskubidearen gainetik dagoelako printzipioa errespetatzen baitugu, baina lege hau debekatuta dagoena debekatzera heltzen da, eta ez du egiazki aplikatzeko beharrezkoa den adostasun sozialik, ez baita egunero-ko ekintzak nahi gabeko arriskurik gabe eta bereizkeriarik gabe garatu ahal izateko bitartekorik ezartzen.

Lege proiektu honek ez du behin ere neurtzen zer eragin izan dezakeen enpresen eta industriaren sektorean, aldeztatik ez baita planteamendurik egin industria-garapenaren antolamenduari eta planifikazioari buruz eta proiektu hau aplikatzeak produkzio-sektoreengan eragin ditzakeen aldaketei buruz.

Jakin badakigu tabakoa kontsumitzea osasunaren kalterako dela, ados gaude horretan, baina uste dugu eragingarriagoa dela osasun publikoko programak eta jarduerak egokitzea tabakoaren ondorioei aurrea hartzeko, tabakoari buruzko foru planean jasotakoari jarraikiz. Osasun Departamentuak egin behar duena da aipatu plana praktikan jarri gure foru erkidegoko lurralde osoan, eta behar adina neurri ezarri biztanle erretzaile gehienek eskura izan dezaten erretzeari uzteko laguntza programak.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeei antisortze-metodoen erabileraren arloko heziketa eta osasun-laguntza berma diezaien

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2002ko irailaren 12an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeei antisortze-metodoen erabileraren arloko heziketa eta osasun-laguntza berma diezaien".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko irailaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeei antisortze-metodoen erabileraren arloko heziketa eta osasun-laguntza berma diezaien

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du emakumeei laguntzeko

zentroetako hezitzaileen lanbide-profilak birdefinitzeko, hain zuzen ere hezkuntza behar errealetara egokitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Hezkuntza Departamentuarekin zegoen ituna berrezar dezan, hain zuzen ere irakasleei sexu hezkuntzari buruzko prestakuntza ikastaroak emateko eta ikastaro horien merezimenduak aitortzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gazteentzako programa emakumeei laguntzeko zentro guztietan berrezartzeko; halakorik ezean, programa zentralizatu bat eginen du, eta irakatsi horiek hedatzeko, eskuratzeko eta jarraitzeko bideak ere ezarriko ditu.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berma dezan Nafarroako ospitale publikoek RU-486 pilula edukitzea, eskatzen duten ginekologoek erabili ahal izan dezaten.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	